

IV. ERANSKINA: C ETA D TITULAZIO TALDEEN MERITUEN BAREMOA

A BLOKE

A blokean faktore hauek sartzen dira: «Jarduera eta Lanean Aritzea» eta «Gaitasun eta Lanbide Jakintza», eta horietako bakoitzak hainbat item ditu.

Aipatutako item horiek kargudunak ebaluatzen ditu, profesionalak eskabidean idatzitako Ebaluaziorako Ekarpen Fitxak kontuan hartuta.

JARDUERA ETA LANEAN ARITZEA FAKTOREA: Gehienez, 35 puntu.

Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
– Jarduera eta emaitzekiko ekarpena.	5 gradu ebaluatzen dira.	0-20
– Arazoak konpontzea.		0-15
– Hurrenkera eta baliabideen erabilera.		

GAITASUNA ETA LANBIDE JAKINTZA FAKTOREA: Gehienez, 50 puntu.

Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
– Lanbidean eguneratu eta hobetzea.	5 gradu ebaluatzen dira.	0-20
– Erabiltzailearekiko harremana eta gogobetetzea.		0-30

B BLOKEA

Baremo honetan aipatutako merituen baloratze aldera, honako hau zehazten da:

– Ez dira meritutzat hartzen betetzen den lanpostuan egiten den ohiko lan, lan horren eduki propio eta espezifikoko jarduerak. Ebaluazio-batzordeak erabakiko ditu zein diren jarduera horiek.

– Jarduera agindu eta kudeatzen duen entitatea da prestakuntza- edo irakaskuntza-jarduera baten entitate antolatzailea. Zuzenean eman dezake, edota beste erakunde batzuen bitartez. Edonola ere, erakunde antolatzailetzat honako hau hartuko da: bertaratuak jarduera egin duela ziurtatzen duen erakundea eta/edo jarduerari dagozkion titulazioak edo egiaztatgiriak ematen dituen erakundea.

– Nazioarteko, estatuko edo autonomietako merituen baremoa egiaztatgiritan zehaztutakoaren arabera izango da edo, horrelakorik ezean, gertakariak gutxienez lau herrialdetan barreiatzen direnean nazioartekoak direla esaten da, eta herrialde batean (bertako autonomia edo lurraldea) barreiatzen direnean, berriz, nazioartekoak direla.

– Konputurako gehieneko denbora-muga bat duten merituen, profesionalak parte hartzen duen deialdi bakoitzerako direla ulertu behar da.

PRESTAKUNTZA FAKTOREA.

Atal honetan, egindako prestakuntza baloratuko da, betiere titulu ofizial bat lortzeko ikasketa-plan baterako prestakuntza ez bada.

Hurrengo erakundeek antolatu eta ziurtatutako etengabeko prestakuntza bakarrik hartuko da kontuan:

- Unibertsitateak eta Unibertsitate Eskolak.
- Ikastetxe publikoak (kontzertatuak barne titulu ofizialak ematen dituztenean).
- Osasun Sistema Nazionaleko edo Europar Batasuneko kideetako organismoak eta osasun-zentroak.
- Administrazio erakundeak eta organismoak.
- Elkargo Profesionalak, Elkarte Zientifikoak eta Profesionalen Elkarteak.
- Estatuko Administrazio publikoek izenpetutako Etengabeko Prestakuntzako Akordioen ondorioz emandako eta egiaztatutako ikastaroak.

Prestakuntza-jarduerak kredituen arabera puntuatzen dira, baldin eta honako hauek emandako kredituak badira:

- Estatuko Unibertsitateen kredituak.
- Europako ECTS kredituak (Unibertsitateen kredituen 2,5 kreditu balio dute).
- Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen kredituak.

Jarduerak ez badu horrelako krediturik, jasotako prestakuntza-orduen arabera puntuatuko da (ez dira sartzen praktiketarako orduak edo titulazioa edo dagokion egiaztagiria lortzeko eska daitezkeen erakundeetan egindako egonaldi-orduek).

Titulazioa eta Etengabeko Prestakuntza:

Etengabeko prestakuntzat hartuko dira: behin oinarrizko titulazio edo dagokion espezialitatea atera ostean, gaitasun profesionala mantendu, areagotu edo hobetzeko jarduerak; ikastaroak, mintegiak, tailerrak, etab...

Ez krediturik ez ordurik jartzen ez duten jarduerak irakastegunen arabera puntuatuko dira, baldin eta behar bezala ziurtatuta badaude. Eta ez krediturik, ez ordurik ezta egunik jartzen ez duten jarduerari egun bateko puntuazioa emango zaie.

Ez-presentziazko prestakuntzari gehienez 600 ordu/60 kreditu emango zaizkio urteko konputuan. Muga hori ez zaio aplikatuko Osakidetzako prestakuntza-programetan sartzen diren ikastaroei.

Deialdi honetan, Etengabeko Prestakuntza jardueragatiko gehieneko puntuazioa 25 puntukoa izango da.

Hurrengo lanbide garapenerako deialditik aurrera, gehienez 12 puntu emango dira presentziazko Etengabeko Prestakuntza jarduera bakoitzeko, eta 10 puntu ez-presentziazko Etengabeko Prestakuntza bakoitzeko, heziketa-programakoak direnean izan ezik.

Tituluak.

– Lanpostuaz jabetzeko eskatzen ez diren bestelako titulazio akademikoak.	Lizentziatura/Diplomatura.	4,5 Puntu/Titulazioko
	Goi-Mailako teknikaria.	3,5 Puntu/Titulazioko.
	Teknikaria (D taldea bakarrik.)	2,5 Puntu/Titulazioko.

Prestakuntza-ekintzak: Ikastaroak, tailerrak, mintegiak, etab...

– Presentziazko prestakuntza, EPK kreditutan/Unibertsitate-kreditutan/Ordutan/Egunetan ziurtatua.	1,2 puntu/kreditua. 0,12 puntu/orduko.
– Ez-presentziazko prestakuntza, EPK Kreditutan ziurtatua/Unibertsitate kreditutan ziurtatua.	0,6 ptu/eguneko.
– Ez-presentziazko prestakuntza, ordutan/egunetan ziurtatua.	0,08 puntu/orduko. 0,4 ptu/eguneko.
– IT Txartela ziurtagiriak.	0,6 puntu/ Txartela.

Bilera zientifiko-teknikoak.

Honako deialdi edo foroak hartuko dira bilera zientifiko-teknikotzat: lanbide baten edo ezagutza-eremu bateko ezagutza espezifikoak horrekin zerikusia duten profesionalen artean bereziki hedatu edo eztabaidatzeko diren deialdiak edo foroak: Biltzarrak, jardunaldiak, mahai-inguruak, sinposioak, etab...

Ez krediturik ez ordurik jartzen ez duten jarduerak irakastegunen arabera puntuatuko dira, baldin eta behar bezala ziurtatuta badaude. Eta ez krediturik, ez ordurik ezta egunik jartzen ez duten jarduerari egun bateko puntuazioa emango zaie.

Bilera zientifiko teknikoak (Gehienez, 1,5 puntu/bilera bakoitzeko).

– Kreditutan ziurtatua (EPK/Unibertsitatekoak).	1,2 puntu/kredituko.
– Ordutan ziurtatua.	0,12 puntu/orduko.
– Egunetan ziurtatua.	0,6 puntu/eguneko.

IRAKASKUNTZA ETA JAKINTZAREN HEDAPENA ETA BERRIKUNTZA FAKTOREA.

Diziplina profesionaleko eta betetako lanpostuko eduki beretan, eta baita haiei lotutako tresna teknikoetan egindako irakaskuntza-jarduerak baloratuko dira.

Hurrengo erakundeek antolatu eta ziurtatutako jarduerak bakarrik hartuko dira kontuan:

- Unibertsitateak eta Unibertsitate Eskolak.
- Ikastetxe publikoak (kontzertatuak barne titulu ofizialak ematen dituztenean).
- Osasun Sistema Nazionaleko edo Europar Batasuneko kideetako organismoak eta osasun-zentroak.
- Administrazioako erakundeak eta organismoak.
- Elkargo Profesionalak, Elkarte Zientifikoak eta Profesionalen Elkarteak.

– Estatuko Administrazio publikoek izenpetutako Etengabeko Prestakuntzako Akordioen ondorioz emandako eta egiaztatutako ikastaroak.

Komunikazio edo argitalpen baten egileztat hartzeko, «Vancouver-ko Arauak» delakoan zehaztutakoa hartuko da erreferentziatzat.

Graduatu aurreko irakaskuntza.

Zer da graduatu aurreko irakaskuntza?: titulazio akademiko ofizial bat ateratzeko ematen den irakaskuntza.

– Lanbide Heziketako Irakaskuntza (Gehienez, 10 urte).	Praktiketako tutore-arduraduna (Lanb.Heziketa).	1,5 puntu/urte-ikasturte bakoitzeko.
--	---	--------------------------------------

Graduondoko irakaskuntza eta etengabeko prestakuntzakoa.

Horren baitan graduondoko irakaskuntza-jarduerak eta etengabeko prestakuntzari lotutakoak sartzen dira: ikastaroak, tailerrak, saio kliniko orokorrak, etab...

– Etengabeko prestakuntza/Graduondoko irakaskuntza.	Emandako ikastaroak.	1 puntu/orduko.
	Praktiketako tutore arduraduna (Eten. Prestak.).	1,5 puntu/ikastaldiko.

Bilera zientifiko-teknikoak.

Txostena*.	Lehen egilea/txostengilea.		7 ptu/txosten bakoitzeko.
	Egile laguntzailea/ Moderatzailea.		4 ptu/txosten bakoitzeko.
Ahozko komunikazioa, bideo-komunikazioa, poster-komunikazioa*.	Nazioartekoa.	Lehen egilea/Txostengilea.	3,5 puntu/komunikazioko.
		Egile laguntzailea/ Moderatzailea.	1,75 puntu/komunikazio bakoitzeko.
	Estatukoa/eskualdekoa.	Lehen egilea/Txostengilea.	1,75 puntu/komunikazio bakoitzeko.
		Egile laguntzailea/ Moderatzailea.	0,8 puntu/komunikazio bakoitzeko.
Dibulgazioko komunikazioak/parte-hartzeak lanbideko eremuan (hitzaldiak, etab...).			0,7 puntu/komunikazioko.

* Txostenek edo komunikazioek sari edo goraiipamen bat jasotzen badute, euren puntuazioa %50 areagotuko da (moderatzailea alde batera utzita).

Argitalpenak.

– Artikuluak argitaratzea.	Nazioartekoa.	Lehen egilea.	7 ptu/artikulu bakoitzeko.
		Egile laguntzailea.	5 ptu/artikulu bakoitzeko.
	Estatukoa.	Lehen egilea.	5 ptu/artikulu bakoitzeko.
		Egile laguntzailea.	3,3 ptu/artikulu bakoitzeko.
	Eskualdekoa.	Lehen egilea.	3,3 ptu/artikulu bakoitzeko.
		Egile laguntzailea.	2 ptu/artikulu bakoitzeko.
– Liburuak (jardunaldi, biltzarretako.. txosten edo komunikazioak izan ezik).	– Osakidetzak argitaratutako liburuetan egile gisa parte hartzea. – Egile edo egilekide moduan parte hartzea ISBN edo Legezko Gordailua duten liburuetan edo liburuetako kapituluetan.		5 puntu/liburu-kapitulu bakoitzeko.

Jakintza Hedatzearekin eta Berrikuntzarekin lotutako bestelako merituak.

– Irakaskuntzako eta jakintzaren hedapenerako jarduerak antolatzea; ikastaroak, biltzarrak, jardunaldiak, mahai-inguruak eta abar.	Batzorde Antolatzaileko presidente/presidenteordea.	7 ptu/gertakizun bakoitzeko.
	Batzorde antolatzaileko kidea.	4 ptu/gertakizun bakoitzeko.
– Zerbitzu-erakundeak ebaluatutako proiektuak edo azterketak eta bertako Gerentziak edo bere Zuzendaritza Kontseiluko kideek ziurtatuak.	Proiektuaren arduraduna/proiektu taldeko kidea.	4 ptu/proiektuko.
– Landa-laneko kolaboratzailea.		2 ptu/proiektuko.
– Erakunde ofizial batek onartutako diziiplina profesionalari lotutako Paneletan/Adituen Batzordean parte-hartzea.	Koordinatzailea/Ebaluatzaile seniorra.	6
	Kolaboratzaile/ebaluatzailea.	4
– Euskaliten Ebaluazio taldean parte-hartzea.	Koordinatzailea/Ebaluatzaile seniorra.	4
	Kolaboratzaile/ebaluatzailea.	3

C BLOKEA

C blokea honako itemek osatzen dute: «Talde-lan» eta «Egokitzeko gaitasuna».

Aipatutako item horiek kargudunak ebaluatzen ditu, profesionalak eskabidean idatzitako Ebaluaziorako Ekarpenean Fitxak kontuan hartuta.

ERAKUNDEAREKIKO INPLIKAZIOA ETA KONPROMISOA FAKTOREA: Gehienez, 45 puntu.

Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
– Talde-lana.	5 gradu ebaluatzen dira.	0 - 40
– Egokitzeko gaitasuna.		

Organo, batzorde eta taldeetan parte-hartzea:	Meritu ziurtatuak	Gehienez 5 puntu
<ul style="list-style-type: none"> – Lanbide Garapeneko Batzorde Korporatiboa. – Aldizkari Ofizialetan argitaratutako organo edo batzordeetan parte hartzeko izendapenak, Administrazioeko Hautaketa-Epaimahaietan, Osasun Saileko Aholku Batzordeetan, ikasketak luzatzeko eta bilera zientifikoak antolatzeko laguntza-batzordean, Kontratazio Mahaietan... parte hartzeko izendapenak. – Hautaketa-epaimahaietan eta ebazpen bidez izendatutako beste organo batzuetan parte hartzeko izendapenak. – Osakidetzako langileen lan-baldintzen Akordioa aplikatzearen ondorioz sortutako organo, batzorde edo komisiotan parte hartzeko izendapenak. 	Presidente edo idazkaria.	2 puntu/epaimahahia-batzordea.
	Kidea.	1 puntu/epaimahahia-batzordea.
	Presidente edo idazkaria Ordezkoa.	1 puntu/epaimahahia-batzordea.
	kidea Ordezkoa.	0,5 puntu/epaimahahia-batzordea.
<ul style="list-style-type: none"> – Zerbitzu erakundeetako lanbide garapenerako Ebaluazio Batzordeak. 	Kidea.(Gehienez, 5 puntu)	0,5 puntu/deialdiko.
	Ordezko kidea (Gehienez, 5 puntu).	0,3 ptu/deialdiko.
Erakundeetako beste batzorde batzuk: <ul style="list-style-type: none"> – Segurtasun eta Lan-Osasuneko Batzordea. – Euskarako Batzordea. – Mugikortasuneko Batzordea. – Erosketetarako Batzordea. – Ingurumen Batzordea. – Langileak kontratatuzeko Batzordea. – Osasun-arazoengatikoko Lekualdatze Batzordea. 	Kidea.(Gehienez, 10 urte)	0,25 puntu/urteko.
	Ordezko kidea (Gehienez, 10 urte).	0,1 puntu/urteko.
<ul style="list-style-type: none"> – Osasun Sailak, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak edo Zuzendaritza Kontseiluko kideek izendatutako lan-taldeak. 	Kidea.	1,5 puntu/taldeko.
<ul style="list-style-type: none"> – Lan-taldeak (egonkorrak edo proiektu espezifikoak egiteko), Zerbitzu-Erakundeko gerente-zuzendariak edo bere Zuzendaritza Kontseiluko kideek izendatuak. 	Presidente/Idazkari/presidenteorde.	1,5 puntu/taldeko.
	kidea	1 puntu/taldeko.
<ul style="list-style-type: none"> – Zerbitzu Erakundeko Gerentziak izendatutako Prozesuen jabeak (ZE-ko Prozesuen Mapan sartuta dauden prozesuak dira, eta Prozesukako Kudeaketa Metodologiaren arabera kudeatuak). 	Prozesuen jabeak.	2 puntu/ prozesuko.